# 2026ko SANTIO JAIAK
# EGITARAUAREN AZALA/KARTELA EGITEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Astigarragako Udalak 2026ko Santio jaietako kartel lehiaketa publikoa eta irekia antolatu du.

## PARTEHARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango du 14 urtetik gora duen edozein pertsonak, banaka edo taldean, epaimahaikoek eta Astigarragako Udaleko langileek izan ezik. Adin txikikoek guraso edo legezko tutoreen baimena izan beharko dute parte hartu eta, hala badagokio, saria jasotzeko ere.

## EZAUGARRIAK

- Kartela, ideia nahiz edukiari dagokionez, originalak eta argitaragabeak izan behar du.
- Artxiboak 300 ppp.ko bereizmena eta formatu bertikala izan behar ditu.
- Artxiboak ezingo du 8 Mb baino gehiago pisatu.
- Kartelean ondoko testua agertu behar da: “Astigarraga, SANTIO JAIAK 2026, uztailak 22-26”
- Kolorea eta teknika aukerakoa izango da.
- Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake.
- Generoen irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.

## NOLA eta NON AURKEZTU

- Lanak nahitaez ordenagailuz egingo dira eta e-mailez bidaliko dira helbide honetara: astigarraga.kultura@gmail.com eta mezuaren gai gisa “2026_SANTIO JAIETAKO KARTELA” jarri behar da.

- Kartela JPG formatuan aurkeztu behar da. Artxiboari izena jarri behar zaio kartela identifikatzeko baina izen horretan ezingo da egilearen daturik eman.

- Kartel proposamenaren artxiboarekin batera, parte hartzeko formulario osatu bidaltzea nahitaezkoa da eta horrekin batera nortasun agiria bi aldeak eskaneatuta.

- Edozein datu edo nortasun agiria falta bada, kartela lehiaketatik kanpora geratuko da.
- Kartelean pertsonaren baten irudia agertuz gero, irudi hori kartelean azaltzeko eta kartelaren edizioa egin ahal izateko pertsona horrek emandako baimena, sinatuta, aurkeztu beharko da.

- Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 1eko 9:00ak izango da.

## EPAIMAHAIA

- Epaimahaia Udaleko bi zinegotzik eta erabakitzeko egunean jai batzordera etortzen diren elkarte bakoitzeko kide banak osatuko du. Idazkari lanak udaleko kultur teknikariak egingo ditu.
- Epaimahaia, ahalordea, ekaineko lehen astean elkartuko da, irabazlea hautatzeko.
- Epaimahaiak, oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako kartelen artean, aukeratuko du kartel irabazlea.
- Aurkeztutako lanak oso kalitate txikikoak badira, epaimahaiak lehiaketako saria eman gabe uztea erabaki dezake.

Udaleko bi zinegotzik eta jai-batzordera etorritako elkarte bakoitzeko kide banak hautatuko dute kartel irabazlea. Idazkari lanak kultura teknikariak egingo ditu.

## SARIA

Lehiaketa irabazten duenak 700 euroko saria jasoko du, baina saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik.
Sariak indarrean dagoen legerian ezarritako atxikipena izango du.

## EGILE ESKUBIDEAK

Saria ordaindutakoan Astigarragako Udala lan irabazlearen jabea izango da eta bereak izango dira lana ustiatzeko eskubidea ere. Halaber, oraingo eta etorkizuneko euskarri eta plataforma guztietan saritutako lanaren erreprodukzio, moldatze, banatze, komunikazio eta zabaltze eskubideen jabea izango da.

Astigarragako Udalak ahalmena izango du kartel irabazlean udal armarria edo bestelako moldaketak egiteko eta egoki iritzitako informazioa txertatzeko.

Lanaren jatorrizko diseinuak inprimatzerakoan, lanak aldaketaren bat izan lezake eta irabazleak egin beharko ditu egitarauko azken aldaketak inprentara eraman aurretik.

Lehiaketara aurkeztutako lanekin Udalak erakusketa bat egin lezake.

Egileak behar bezala kudeatuta eduki behar ditu kartelean agertzen diren argazki, ilustrazio eta baliabide grafiko guztiak erabiltzeko eskubideak. Beste obra baten irudirik erabili badu edo plagiorik egin badu, egilea izango da gerta litezkeen arazoen erantzule bakarra, eta obra berehala erretiratuko da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri guztiak onartzea. Lehiaketaren oinarriei buruz sor daitezkeen zalantza edo desadostasunak Udalak interpretatu eta ebatziko ditu.

Astigarragako Udala

Kultura eta Jai saila

**FIESTAS "SANTIO JAIAK 2026"**
**BASES DEL CONCURSO PARA LA REALIZACIÓN DE LA PORTADA/CARTEL DEL PROGRAMA**

El Ayuntamiento de Astigarraga ha organizado un concurso público y abierto de carteles de las fiestas Santio jaiak de 2026.

## PARTICIPANTES

Podrá participar en este concurso cualquier persona mayor de 14 años, individual o colectivamente, a excepción de las personas que componen el jurado y del personal del Ayuntamiento de Astigarraga. Las personas menores de edad necesitarán la autorización de los padres-madres o tutores legales tanto para participar como para recibir el premio, si así correspondiera.

## CARACTERÍSTICAS

• Los carteles deben ser originales e inéditos en cuanto a ideas y contenido.
• El archivo debe tener una resolución y formato vertical de 300 ppp.
• El peso del archivo no podrá exceder de 8 Mb.
• En el cartel deberá figurar el siguiente texto: ASTIGARRAGA, SANTIO JAIAK 2026. uztailak 22-26.
• El color y la técnica serán opcionales.
• Cada participante puede presentar un máximo de dos propuestas.
• Las imágenes utilizadas buscarán el equilibrio en la representación de géneros, sin incidir en los roles y estereotipos tradicionales y evitando el tratamiento peyorativo de las diferencias en materia de sexo, raza, edad, cultura o opción sexual.

## LUGAR Y MODO DE PRESENTACIÓN

• Los trabajos se realizarán obligatoriamente por ordenador y se enviarán vía e-mail a astigarraga.kultura@gmail.com, indicando en el asunto del mensaje "2026_SANTIO JAIETAKO KARTELA".

• El cartel tiene que presentarse en formato JPG y con un nombre, que permita identificar el archivo, pero no identificar al autor-a.

• Junto con el archivo de la propuesta de cartel, es obligatorio enviar el formulario de participación rellenado y con él el DNI o documento oficial de identidad en el caso de personas extranjeras, escaneado por sus dos caras.

• La falta de cualquier dato o del carnet supondrá la exclusión del cartel del concurso.

• En el caso de que en el cartel aparezca una imagen de alguna persona, se deberá aportar la autorización firmada por dicha persona para que ésta aparezca en el cartel y pueda realizarse la edición del mismo.

• La fecha límite de presentación de los trabajos será el 1 de junio a las 9:00 horas.

**TRIBUNAL**

• El tribunal estará compuesto por dos concejalas del Ayuntamiento y una persona de cada asociación que acuda a la comisión de fiestas el día de la elección. La técnico de cultura municipal hará la labor de secretaria.

• El jurado se reunirá la primera semana de junio y decidirá la propuesta ganadora.
• El jurado elegirá el cartel ganador entre los carteles presentados que cumplan todos los requisitos recogidos en estas bases.
• Si los trabajos presentados son de muy baja calidad, el jurado podrá declarar desierto el premio del concurso.

**PREMIO**

La persona ganadora del concurso recibirá un premio de 700 euros, que podrá quedar desierto siempre que los trabajos presentados no tengan la calidad suficiente. El premio estará sujeto a la retención establecida en la legislación vigente.

**DERECHOS DE AUTORÍA**

Una vez abonado el premio, el Ayuntamiento de Astigarraga será el propietario de la obra ganadora, así como los derechos de explotación de la misma. Asimismo, será titular de los derechos de reproducción, adaptación, distribución, comunicación y difusión de la obra premiada en todos los soportes y plataformas presentes y futuros.

El Ayuntamiento de Astigarraga estará facultado para insertar en el cartel gandor el escudo municipal, realizar modificaciones e insertar la información que estime oportuna.

A la hora de imprimir los diseños originales de la obra, el trabajo podría sufrir alguna modificación y la persona ganadora deberá realizar las últimas modificaciones del programa antes de llevarlas a imprenta.

Con las obras presentadas al concurso el Ayuntamiento podría realizar una exposición.

El-la autor-a debe tener debidamente gestionados los derechos de uso de todas las fotografías, ilustraciones y recursos gráficos que aparecen en el cartel. En el caso de que haya utilizado imágenes de otra obra o haya hecho plagio, el-la autor-a será el-la único-a responsable de los problemas que puedan producirse y la obra será retirada inmediatamente.

La participación en este concurso implica la aceptación de todas las bases y será el Ayuntamiento quien decida sobre las dudas o discrepancias que puedan surgir en torno a las mismas.